

## LAS ARTES GRÁFICAS DE BIZKAIA EN LUCHA

# Es hora de dignificar las condiciones de trabajo



**E**l 8 de octubre de 2018, ELA solicitó que se retomasen las negociaciones del Convenio Provincial de Artes Gráficas e Industrias Auxiliares, Manipulados de Papel y Cartón y Editoriales de Bizkaia. La solicitud, registrada en las oficinas del Consejo de Relaciones Laborales en Bilbo, estaba dirigida a la Comisión Negociadora constituida en Enero de 2012.

Junto a la solicitud de reunión, desde ELA registramos un documento con **25 puntos** que van a ser incluidos en nuestra Plataforma. En los 25 puntos se destacan, entre otros, cláusulas que **dejan fuera las reformas laborales (como son la imposibilidad del descuelgue unilateral; la ultraactividad indefinida, jornada regular...)**, **actualización de salarios hasta 2017 e incrementos sustanciales para los años de vigencia (IPC + 3%)**. Además incorporamos muchas mejoras en las condiciones de trabajo del sector.

Desde ELA entendemos que, en los últimos años la situación del sector ha mejorado y es hora de luchar por **dignificar las condiciones de trabajo del sector de Artes Gráficas de Bizkaia**.

El 26 de octubre de 2018, se celebró la reunión en la que participamos ELA, CCOO y LAB. Sin embargo, la Patronal no asistió. Tampoco UGT. Desde ELA nos parece muy grave esta decisión patronal. Significa que

han incumplido el deber que tienen de negociar. Nuestra intención era la de desarrollar y compartir los puntos de nuestra plataforma, así como establecer un calendario de reuniones para negociar un Convenio que dignifique las condiciones de trabajo de los y las trabajadoras del sector, algo que se ha frustrado ante la incomparecencia de la Patronal.

Desde ELA, queremos recordar que la última reunión de la Mesa se celebró en junio de 2013. Un mes después, el 5 de julio de 2013, **la patronal de Artes Gráficas** de Bizkaia comunicó por escrito a la Mesa su decisión unilateral de dar por finalizadas las negociaciones. Además, mediante dicho escrito, **quiso imponer el Convenio Estatal** en el sector de Bizkaia. ELA recurrió mediante conflicto colectivo y en febrero de 2014, el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, estimó nuestra demanda, al reconocer la **ultraactividad indefinida** del último Convenio Provincial de Bizkaia (2009-2011). Ello ha significado, que en estos últimos años, en contra de los intereses de la Patronal; el Convenio que se ha venido aplicando ha sido el provincial de Bizkaia.

La misma **Patronal** que fracasó en su intento en el 2013, ahora quiere imponer su criterio a la hora de componer la mesa de negociación: **quiere tener la decisión final de con quién, cómo y cuándo negociar**. ELA entiende que no están actuando con la buena fe que requiere toda negociación; no están respetando a los y las trabajadoras del sector.

**ELA manifiesta que no va a aceptar ni imposiciones, ni vetos patronales.** Hemos demostrado nuestra clara **voluntad de negociar y de hablar sobre contenidos de convenio**; nuestros siguientes pasos irán en esta dirección. Sin embargo, somos muy conscientes de que la Patronal no tiene ninguna voluntad negociadora. Así lo está demostrando. En este sentido, solo nos va a quedar trabajar para **organizar a las empresas del sector, y generar una suficiente capacidad de lucha**. Entendemos que es hora de dignificar las condiciones de trabajo de Artes Gráficas de Bizkaia. ELA asume el compromiso de luchar por ello.

### BIZKAIKO ARTE GRAFIKOAK BORROKAN

# Bada garaia gure lan-baldintzak duintzeko



**2** 018ko urriaren 8an eskatu zuen ELAk negoziatzioei berriro ekiteko, eta Arte Grafikoak eta Industria Laguntzaileak, Paperaren eta Kartoiaren manipulazioa, eta Argitaletxeetako Bizkaiko Hitzarmena berritzeko. Gure eskaria Lan Harremanen Kontseiluaren Bilboko bulegoetan erregistratu genuen, eta 2012ko urtarrilean eraturiko Negoziazio Batzordeari zuzendua zen.

Bilera-eskariarekin batera beste agiri bat erregistratu genuen, **25 punturekin**, ELAk bere plataforman txertatu nahi zituenak. 25 puntu horien artetik nabarmentzekoak dira, besteak beste, **lan-erreformak saihesteko klausulak (alde bakarretik hitzarmena salbuestea eragozten duena, aurrera-eragin mugagabea, lanaldi erregularra...), soldatak 2017ra arte eguneratzea eta indarraldi-urteetarako igoera nabarmenak (KPI+%3)**. Gainera, hobekuntza asko sartu ditugu sektoreko lan-baldintzetan

ELAn uste dugu sektorearen **egoera hobetu** dela azken urteotan, eta orain Bizkaiko Arte Grafikoetako Sektoreko **lan-baldintzak duintzeko ordua heldu da**.

2018ko urriaren 26an egin zen bilera, eta ELA, CCOO eta LAB sindikatuok elkartu ginen, patronala aldiz ez zen handik azaldu. UGT ere ez. ELAn oso larria iruditu zitzaigun patronalaren erabaki hura, negozia-

tzeko egin beharra ez baitute bete. Gure plataformaren puntuak garatzea eta partekatzea zen gure asmoa. Bilera-egutegi bat finkatu nahi genuen, halaber, sektoreko langileen baldintzak duintzearen. Baina asmoek huts egin dute, patronalaren bertaratze ezagatik.

ELAtik gogora ekarri nahi dugu noiz izan zen Mahaiaren azken bilera: 2013ko ekainean. Handik hila-betera, 2013ko uztailaren 5ean, Bizkaiko Arte Grafikoetako **patronalak** idatziz jakinarazi zion Mahaiari bere alde bakarreko erabakia, negoziatzioak amaitutzat jotzekoa. Gainera, idazki horren bidez, **Estatuko Hitzarmena ezarri nahi izan zuen Bizkaiko sektorean**. ELAk, orduan, gatazka kolektiboa aurkeztu zuen, eta 2014ko otsailan EAEko Auzitegi Nagusiak gure eskaria onetsi zuen, Bizkaiko Hitzarmenari **mugagabeko aurrera-eragina** aitortuz (2009-2011). Horren ondorioz, azken urteotan aplikatu izan den hitzarmena Bizkaikoa izan da, Patronalaren interesen kontra.

2013. urtean bere asmoak ezartzen alferrik saiatu zen **patronal** hark berak orain bere irizpidea ezarri nahi du negoziatzio-mahaia osatzerakoan. Haiek **erabaki nahi dute norekin, zelan eta noiz negoziatu**. ELAren iritziz ez dute fede onez jokatzeko, negoziatzioetan beharrezkoa den fede onaz, ez dituzte errespetatzen sektoreko langileak.

**ELAk, bere aldetik, adierazi du ez duela patronalaren ezarpenik onartuko, ezta betorik ere**. Guk gure borondatea argi eta garbi erakutsi dugu: **hitzarmenaren edukiak eztabaidatu eta negoziatu gura ditugu**. Eta gure hurrengo pausoak norabide horretatik joango dira. Hala ere, jakin badakigu patronalak ez duela batere gogorik negoziatzeko, hala frogatu baitu orain arte. **Alde horretatik ez dugu besterik izango sektoreko langileak antolatzea baino, eta horrela borrokarako indar nahikoa metatuz joatea**. Gure ustez bada garaia Bizkaiko Arte Grafikoetako lan-baldintzak duintzeko. ELAk bere egiten du horren alde borrokatzeko konpromisoa.